

5. LEGE AHOLKULARITZA

gaizki ulertua

sarean galdetzeko aukera

doaneko kontsulta



Jakina denez, herritarrei ez zaie oso erraza egiten legeen munduan mugitzea eta ez da harritzekoa jendea lege-kontuetan galdu samarra ibiltzea eta, askotan, gauzak behar bezala ez ulertzea. Ikus dezagun zer moduz moldatzen garen zeregin hori euskaraz betetzen.

gaizki ulertua

- Ondoko galderak irakurriko dituzu eta, bideo-pasartea¹ ikusi ondoren, erantzuten saiatuko zara.

1. Zertara joan dira Endika eta Karmen Udalera?

2. Zer beste informazio eskatzea erabaki dute?

3. Gaizki ulertu bat gertatu da. Zein?



- Zuzenbidearen arloko gaiez oso informazio gutxi izan ohi dugu hiritarrok. Izan ere, askotan ez dakigu non argitu gure zalantzak. Hemen dituzue *Justizia.net* web gunearen forotik hartutako hainbat adibide: testuingurua emana dator, baina galdera ezabatu dugu. Zein izan ote da galdera kasu bakoi-tzean?

1. Bikote bat banandu egiten da. Adinez nagusi diren bi seme-alaba dituzte, oraindik ikasle direnak. Andreari pisua egokitu zaio, ezkontide biena izan arren; emaztearen soldata senarrarena baino handiagoa da.

Noiz arte eman behar die aitak mantenurako pentsioa seme-alabei?

2. Astelehenean poltsa lapurtu egin zidaten kalean "tiroia" eginez.
_____?

3. Adinez txikia den batek egindako delitu baten biktima izan naiz.
_____?

4. Salaketa bat jarri nuen, baina artxibatu egin dute.
_____?

5. Komunitateetan gaizki egindako obra batzuegatik prozesu bat jarri nahi dugu martxan. Abokatuak 42.000 euro eskatzen dizkigute, galtzekotan horren inguruan ibiliko bailitzateke minuta. Gu erretiratuak gara, pentsionistak, eta gure diru-sarrerak batuta ozta-ozta gutxieneko soldataren bikoitza gainditzen dugu.
_____?

6. Azkeneko bolada honetan neure auzokoen etxean gauza ezohikoak ari naiz entzuten eta susmatzen hasita nago tratu txarrak-edo ez ote diren gertatzen ari.
_____?

7. Auzoko festetan bideo-erreportaje bat egin nuen kalean, dantzaldietan... Taberna batean ere irudi batzuk hartu nituen eta bertan zeudenetako batek mehatxatu egin nau salaketa jartzearekin.
_____?

- Idatzi dituzuen galderak ikaskideekin alderatu eta gero zalantzan bazaude-te, irakasleari galdetzeko garaia izango da. _____

Zerbitzu publikoak ez dira ugari, baina gero eta gehiago dira Interneten dauden kontsulta-zerbitzuak. Horietako bat eskaintzen du *Consumer* aldizkari elektronikoak.

- Hona hemen kontsumitzaile batek Consumer aldizkarira bidalitako galdera. Pentsatu eta komentatu ikaskide batekin zer erantzungo zeniokeen?

62

Andregaiarekin nenbilela, kontu korrante bat ireki genuen eta neu azaltzen nintzen titular nagusi gisa. Aspaldi utzi genuen harremana, baina hilabete batzuk geroago kontu zenbaki horretan 2.100 euroko zorra nuela jakinarazi zidaten banketxetik, eta nik ez dut kopuru hori gastatu. Andregai ohiak ez ditu zorrak ordaintzen eta, titular gisa, neuk ordaindu behar ditut, bestela, abokatuetera joko baitu banketxeak. Zer egin dezaket?



5. LEGE AHOLKULARITZA
sarean galdetzeko aukera

- Entzun ezazu orain Consumer aldizkariko lege-aholkulariak kontsumitzaileari zer erantzun dion eta saia zaitetz adituak ematen dituen datu garrantzizkoenak (arrazoiak eta aholkuak) jasotzen.

datu garrantzizkoenak jasotzen

Handwritten notes area with horizontal dashed lines for writing.



- Elkar zaitetz ikaskide batekin eta konprobatu informazio bera jaso duzuen. Beharrezkoa iruditzen bazaizue, esan irakasleari berriro ipintzeko audio-pasarteak.

- Gure artean ez dago ohitura handirik abokatuenera jotzeko, behar-beharrezkoa ez bada. Demagun abokaturengana joan zarela zerbait kontsultatzerara, eta handik egun batzuetara hara non ikusten duzun abokatu bera kalean kantari eta eskean. Frantzian gertatu da; entzun ezazu irratsaioa².

1. Zer pentsatuko zenuke?

2. Abokatuak emandako aholkua sinesgarri izango litzateke oraindik?

- Abokatuak zalantzak argitzeko daude, baina ez dira oso merkeak izaten haien zerbitzuak. Ba ote dugu abokatua ordaindu gabe kontratatzeke modurik? Ea aurkitzen duzun erantzuna honako testuan, irakurketa azkarra eginez.

1978ko Espainiako Konstituzioko 24. artikuluari jarraiki, pertsona guztiek dute epaile eta auzitegien babes eraginkorra lortzeko eskubidea, eta ez da inongo kasutan defentsagabeziarik sortuko.

Horrela bada, pertsona guztiak esatean, legeak esleitutako eskubideak egikaritzeko babes judizial eraginkorra behar duten pertsona guztiez hitz egiten ari gara, beren egoera ekonomikoa alde batera utzita. Hau da, Justiziara iristeko orduan berdintasuna bermatu behar zaie herritarrei, eta ez da bereizketarik egingo jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo pertsonaren edo gizartearen beste edozein baldintza edo izaeragatik; arbitrariotasunak ezin du lekurik izan. (Konstituzioko 14. eta 25. artikulua)

Bestalde, aipatu artikuluko bigarren paragrafoan, besteak beste, honako hau ezartzen da: herritar guztiek dute eskubidea legean ezarritako epailerengana jotzeko, letraduaren defentsa eta laguntza izateko, eta beren aurka jarritako akusazioaren berri izateko.

Hortaz, beharrezkoa da Doako Justiziako sistema bat ezartzea, eskubideak defendatzeko baliabide materialik ez duten pertsonak Justiziara hurbildu ahal izan daitezen.

Hori guztia, Espainiako Konstituzioko 119. artikuluan xedatzen da: Justizia doakoa izango da legeak horrela erabakitzen duenean, eta, edozein modutan, auzitan jarduteko baliabide nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenentzat. Horregatik, Doako Laguntza Juridikoko 1/1996 Legean, urtarrilaren 10ekoan, justizia-sistema bat arautzen da, auzitan jarduteko baliabide nahikorik ez dutenek babes judizial eraginkorra izateko beharrezko baliabideak izan ditzaten, eta eskubide eta interes legitimoak behar bezala defenda ditzaten.

Beraz, beren egoera ekonomikoa dela-eta babes judizial eraginkorra lortzeko bidea oztopatuta ikusten duten guztiak dira legearen onuradun eta erabiltzaile zuzenak.

Helburua, beraz, guztiei justiziara iristeko aukera berberak bermatzea da.

Eskubidea aitortzeko, bide bikoitza dago: alde batetik, irizpide objektiboa, eskubidea aitortzeko eskatzaileen egoera ekonomikoa kontuan hartzen duena; eta, beste aldetik, irizpide objektiboa osatuz, irizpide malgu bat, subjektiboa, legean ezarritako modulua gainditu arren, aztertu behar diren hainbat inguruabar daudelako, eta, ondorioz, eskubide hori aitortzea komenigarria delako, eskubidea salbuespenez aitortzen duena.

Horrez gain, bermatuta egongo da beti abokatua eta prokuradorea askatasunez izendatzeko interesdunek duten eskubidea.

Zerbitzu hau publikoa da, abokatuek eta prokuradoreek eskaintzen dute, eta fondo publikoekin finantzatzen da. Izan ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziarekin bat, botere publikoak dira zerbitzuaren funtzionamendu zuzenaren erantzule, baliabiderik ez dutenak defendatzea konstituzioan jasotako obligazioa delako.

Ondorioz, kontrol-mekanismoak ezarri beharko dira zerbitzuari esleitutako fondo publikoak behar bezala erabiltzen direla segurtatzeko, eta laguntzarik behar ez dutenak fondo horietaz balia ez daitezen.



- Orain zure txanda da. Kontsulta bati emandako bi erantzunak (A 1 eta A 2) dituzu aurrean dituzu. Biak irakurri, baina kontuan izan bietako bat bakarrik dela zuzena, irakasleak ozenki irakurriko dizuen galderari dagokiona, hain zuzen.

A 1

Jabetza Horizontaleko Lege berriko 12. eta 17. artikuluen arabera, eraikinaren elementu komun batean eraikinaren konfigurazioa aldatu eta bizilagunei eragozpenak sortzen dizkien tximinia bat jarri ahal izateko, bizilagunen Batzarraren aho batezko erabakia behar da. Lokalaren jabearekin arazoa konpontzeko irtenbiderik aurkitzen ez baduzue, bide judizialek neurriak hartzeko aukera dago, tximinia kentzea eskatuz. Horretarako, bizilagunen Ezohiko Batzarrera deitu behar da eta gai zerrendan puntu hori sartu; ondoren, okindegiko jabeari tximinia ken dezala eskatu eta, hala egingo ez balu, bizilagun elkarteak bide judizialek joko duela jakinarazi. Horretarako, Batzarrak ekintza legalak hasteko aginpidea eman beharko dio presidenteari. Gutun bat bidali beharko zaio komunitateko presidenteari gertaeren berri eman eta Ezohiko Batzarrerako deia egitea eskatuz. Kasu horretan, okindegiaren jabeak udal lizentziarik duen ala ez galdetzea ere komeni da. Informazio hori ahoz eskatzen da lehenik, eta interesik izanez gero, idatziz ere egin daiteke Udaleko Erregistro Nagusian.

A 2

Jabetza Horizontaleko Lege berriko 12. eta 17. artikuluen arabera, eraikinaren elementu komun batean eraikinaren konfigurazioa aldatu eta bizilagunei eragozpenak sortzen dizkien tximinia bat jarri ahal izateko, ez da behar bizilagunen baimenik. Hortaz, lokalaren jabearekin arazoa konpontzeko irtenbiderik aurkitzen ez baduzue ere, ezin izango diozue tximinia kentzea eskatu. Aukera bakarra bide judizialek jotzea da. Horretarako, bizilagunen Ezohiko Batzarra deitu behar da eta gai zerrendan puntu hori sartu; onartuz gero, Batzarrak ekintza legalak hasteko aginpidea eman beharko dio presidenteari. Edonola ere, okindegiaren jabeak udal lizentziarik duen ala ez galdetzea ere komeni da. Informazio hori ahoz eskatzen da lehenik eta, interesik izanez gero, idatziz ere egin daiteke Udaleko Erregistro Nagusian.

- Orain, binaka jarrita, gezurrak dauzkaten esaldiak azpimarratuko dituzue.



- Irakurri dituzun testuetan debekua adierazteko hainbat modurekin egin duzu topo. Horiek eta beste batzuk landuko ditugu orain ondoko esaldietan. Aditz nagusia eta laguntzailea ezabatu ditugu esaldi guztietan, batean izan ezik. Ea zuzen betetzen dituzun hutsuneak.

1. Epaiketa amaitu ondoren, ez ____ atera _____ froga-fasean erabilitako gauzak.
2. Dokumentuak _____ izango _____ epaitegitik atera.
3. Hemendik aurrera abokatuek ez _____ eskubiderik _____ aisialdian eurek nahi duten lanbidean aritzeko.
4. Abokatu bati idatzitako agiria ez _____ inolaz ere arkatzez _____.
5. Ez da _____ kalean musika jotzen, harik eta konponketak amaitu arte.
6. Ez _____ libre _____ kalean diru-eske ibiltzea goizeko bederatzietatik gaueko bederatzia arte.

izango
dute
ezin
izango
dira
egingo
utziko
dira
izango
da
da
ahal izango
dira

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.